

ERABAKIA 2025ko ekainaren 10koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearena, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetako plazak betetzeko lehiaketetan onartutako eta baztertutako lehiakideen behin-behineko zerrenda argitaratzeko dena.

UPV/EHUko errektorearen 2025ko apirilaren 14ko erabaki bidez (maiatzaren 8ko EAO eta apirilaren 10ko EHAA), unibertsitateko katedradunen kidegora sartzeko lehiaketaren deialdia egin zen, betiere barne promozioeko plazetarako erreserbatuta,. Errektorego honek ondokoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea unibertsitatearen web orrian argitaratuko da daiteke: <http://www.ehu.eus/> (Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek bi egun balioduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako baten ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioan, 2025ko ekainaren 10koa

ERREKTOREA

Izenpea eskuordetuta (errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Erabakia, 2025/02/19ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen Errektoreordea

Izpta.: Efrén Areskurrinaga Mirandona